**EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO Nº 5/17 DE 28 DE SEPTIEMBRE DE 2017.**

**ACTA**

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES EXTRAORDINARIAS Nº 2/17 DE 14 DE AGOSTO DE 2017 Y EXTRAORDINARIA Nº3/17 DE 18 DE AGOSTO DE 2017.**

Habiéndose remitido con anterioridad a la convocatoria de este Pleno el borrador de las Actas de las Sesiones anteriores de cuya ratificación se trata, se dan por leídas.

[…]

Se ratifican sin correcciones el Acta de la sesión anterior extraordinaria nº 2/17 de 14 de agosto y extraordinaria nº 3/17 de 18 de agosto de 2017.

**PARTE RESOLUTIVA.**

**2.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL DE D. ASIER IBARRONDO ABAD FORMULANDO ANTE EL PRESIDENTE JURAMENTO O PROMESA.**

[…]

Toma posesión del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Sopuerta D. Asier Ibarrondo Abad en este acto y toma asiento junto a su grupo, la AGRUPACION ELECTORAL INDEPENDIENTE de Sopuerta.

**3.- DAR CUENTA DE LOS RESULTADOS DEL INFORME DE FISCALIZACION**

En la Comisión Especial de Cuentas nº 5/17, de fecha 20 de septiembre, se dieron por enterados del resultado de la fiscalización del informe sobre las Cuentas de las Entidades Locales de la CAE 2015.

Dada cuenta se dan por enterados.

**4.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA RECOMENDACIÓN DE EUDEL SOBRE RETRIBUCIONES DEL PERSONAL PARA EL EJERCICIO 2017.**

En la Comisión Especial de Cuentas nº 5/17, de fecha 20 de septiembre, se informa favorablemente por unanimidad su aprobación por el Pleno.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes incrementar un 1% las retribuciones de los empleados públicos de este Ayuntamiento y aprobar la modificación de la plantilla presupuestaria del 2017 recogiendo el incremento del 1% al amparo del art. 18. Dos de la Ley 3/2017, de 27 de junio de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017.

[…]

**5.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE TRES MERCANTILES POR FACTURAS PRESENTADAS SIN EXISTIR PREVIO CONTRATO.**

En la Comisión Especial de Cuentas nº 5/17, de fecha 20 de septiembre, se sometieron a informe preceptivo una relación de facturas que no tienen autorización ni fiscalización previa del gasto, para reconocer extrajudicialmente el crédito a favor de los terceros prestadores de servicios que han presentado las facturas y en su caso, ordenar el pago por el Pleno porque no existe contrato.

Se propone por la mayoría simple que el Pleno reconozca la obligación de pago de las facturas registradas por servicios sobre los que existe comprobación material de prestación de conformidad, conforme a la relación presentada.

Se somete a votación la propuesta:

Votos a favor: 5 de la AEI
Votos en contra: ninguno.
Abstenciones: 5; 2 del EAJ-PNV y 3 de Bildu

Se acuerda por la mayoría simple del número legal de miembros presentes de la Corporación aprobar las facturas y ordenar el pago […]

**6.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA ADDENDA AL CONVENIO DE COLABORACION A SUSCRIBIR ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA GESTION, MANTENIMIENTO, EXPLOTACION Y REPOSICION DE LA RED SECUNDARIA LOCAL DE DISTRIBUCION DE AGUA POTABLE.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº 5/2017, de 20 de septiembre, visto el expediente 2017-0222 tramitado, se informa favorablemente por los dos representantes de la AEI y se abstiene de informar el representante de Bildu y la representante del EAJ-PNV proponiendo por la mayoría simple de los concejales presentes que se apruebe por el Pleno.

[…]

Se acuerda por unanimidad de los Concejales asistentes aprobar la Addenda al Convenio de Colaboración a suscribir con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

**7.-APROBACION, SI PROCEDE, DEL PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS Y ECONOMICAS QUE HA DE REGIR LA OCUPACION DEL M.U.P. Nº 120, PARA LA EJECUCION DE LOS TRABAJOS CONTEMPLADOS EN EL PROYECTO DE ABASTECIMIENTO AL DEPOSITO DE AGUA DE LA MARDONA EN GALDAMES.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº 5/2017, de 20 de septiembre, se informa favorablemente por los dos representantes de la AEI y se abstiene de informar el representante de Bildu y la representante del EAJ-PNV proponiendo por la mayoría simple de los concejales presentes que se apruebe por el Pleno el pliego de condiciones técnicas y económicas que ha de regir la ocupación por traída de agua al Depósito de Mardona y traída por pista Safo, del paraje “El Arenao” del Monte del Catálogo de Utilidad Pública nº 120 “Sopuerta”.

El alcalde retira este punto del orden del día de la sesión.

**8.- DAR CUENTA DEL CONVENIO DE COOPERACION ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE SOPUERTA Y DE ABANTO-ZIERBENA PARA LA UTILIZACION DE LAS PISCINAS MUNICIPALES DE VERANO DE SOPUERTA.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº 5/2017, de 20 de septiembre, se da cuenta del Convenio.

D. Javier Núñez explica el motivo extraordinario de la firma del Convenio

Dada cuenta se dan por enterados.

**PARTE DEDICADA A CONTROL.**

**9.- DAR CUENTA SUCINTA DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS DESDE LA ULTIMA SESION PLENARIA.**

Se da cuenta al Pleno de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria, Decretos desde el nº 451/2017, de 19 de junio hasta el nº 552/ 2017 de 22 de agosto.

Se da cuenta del Decreto nº 542/2017 de 18 de agosto de nombramiento de Segundo Teniente de Alcalde al Concejal D. Alberto Lambarri Arana.

Copia de todos los Decretos citados, se ha remitido a todos los concejales con anterioridad a la convocatoria de este Pleno ordinario, por lo que se dan por leídos y conocidos y cuyo contenido resumido, es el siguiente:

[…]

Dada cuenta se dan por enterados.

Concluido el examen de los asuntos incluidos en el orden del día y antes de pasar al turno de ruegos y preguntas, el Presidente pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el Orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas al amparo del art. 91.4 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Habiéndose presentado dos mociones, el Presidente somete al Pleno la votación, conjunta, sobre la procedencia del debate de las dos mociones presentadas.

**10.- MOCIONES.**

**10.1.-- MOCION DE EH BILDU "CON CATALUÑA, CON LA DEMOCRACIA".**

Por el Portavoz del grupo proponente D. Joseba Andoni Llaguno Hurtado se da lectura al texto de la moción:

*"En el marco de un proceso de largos años, y abriendo las puertas a la demanda de una mayoría de la ciudadanía, el pueblo de Cataluña se ha dotado de recursos democráticos para poder decidir libremente su futuro. Las principales instituciones de Cataluña han decidido firmemente dar paso a la voluntad de la ciudadanía.*

*Los pasos que se han dado en Cataluña con el apoyo de la voluntad de la ciudadanía, han sido contrarrestados desde Madrid con la supuesta razón de la fuerza, del desprecio y de leyes obsoletas.*

*Ante este grave ataque contra las vías democráticas, el Ayuntamiento de Sopuerta debate y aprueba la siguiente moción:*

*1.- Este ayuntamiento reconoce la total legitimidad del referéndum que el Parlamento de Cataluña desea llevar a cabo. Y es que la voluntad de la ciudadanía libremente expresada constituye el instrumento político más eficaz para la construcción del futuro de cualquier pueblo o colectivo.*

*2.- Este ayuntamiento denuncia y rechaza el ataque del estado español contra las decisiones soberanas del pueblo de Cataluña y del Parlament. Porque el Gobierno de Madrid, los tribuales y el Tribunal Constitucional no pueden estar por encima de la voluntad democrática expresada por una amplia mayoría de la ciudadanía de Cataluña.*

*3.- Rechazamos rotundamente llamar a declarar a alcaldes democráticamente elegidos por los ciudadanos de Cataluña. Nos oponemos a la imputación de los alcaldes catalanes que quieren poner en práctica un derecho democrático.*

*4.- Este ayuntamiento se compromete a apoyar los procesos políticos que se desarrollen basado en la libre voluntad de sus ciudadanos en Euska1 Herria en Cataluña o en los demás pueblos del mundo.*

*5.- Este ayuntamiento respeta y pide respetar los resultados de referéndum del 1 de octubre a las distintas instituciones y organismos. Para ello, se resuelve dar cuenta de esta resolución a la presidenta del Parlament de Cataluña, al presidente del gobierno de España y al presidente del Tribunal Constitucional, así como a la ciudadanía de nuestro municipio.*

*6.- Se aprueba que la estelada ondee en el balcón del ayuntamiento hasta la celebración de la consulta del 1de octubre, como muestra de apoyo al pueblo catalán y a sus instituciones.*

El alcalde muestra su rechazo a la colocación de la estelada en el balcón del Ayuntamiento.

Concluida la lectura se somete a votación la moción.

Votos a favor: 3 de Bildu
Votos en contra: 7; 5 de la AEI y 2 del EAJ-PNV
Abstenciones: ninguna.

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación no aprobar la moción “con Cataluña, con la democracia” presentada por EH Bildu.

**10.2.- MOCION DE EAJ-PNV SOBRE CATALUÑA.**

Dª Begoña Dieguez Muñecas procede a dar lectura a la moción de su grupo:

“*Sopuerta 28 de Septiembre 2017*

1. *SOPUERTAKO Udalak bere kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik,zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoei.*

2. *SOPUERTAKO Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.*

3. *SOPUERTAKO Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko kon promisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.*

*4 SOPUERTAkO Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asma demokratikoaren adieraz pena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera.*

1 *El Ayuntamiento de SOPUERTA muestra su rechazo y alarma por la intervención por la vía de hecho de la autonomía catalana y por la operación policial llevada a cabo por las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado que ha conllevado registros y detenciones en instalaciones y responsables legítimos de la Generalitat.*

2 *El Ayuntamiento de SO PUERTA insta al Gobierno de España a desistir en su estrategia represiva de libertades básicas y fundamentales contraria a los principios básicos de la democracia.*

3 *El Ayuntamiento de SOPUERTA reafirma su compromiso con todos los principios democráticos fundamentales y muestra su solidaridad con el pueblo de Catalunya y todas las personas e instituciones que están padeciendo la represión política y antidemocrática dirigida por el Gobierno de España.*

4 *El Ayuntamiento de SO PUERTA insta a que se posibilite la expresión de la voluntad democrática del pueblo de Catalunya y se respete su decisión.”*

Concluida la lectura interviene D. Fabio Cavaliere para explicar su abstención en este caso y la diferencia entre sus dos votaciones en esta y en la anterior moción, manifestando textualmente que: “*Personalmente, condeno rotundamente la actitud antidemocrática del Estado Español hacia la libertad de expresión, reunión y manifestación a favor del referéndum catalán. Un referéndum que el gobierno*

*catalán ha dibujado con normas antidemocráticas, que no representannitutelanla totalidaddelpueblocatalán.Porestemotivo adelantomivotodeabstención”*

D. Joseba Andoni Llaguno Hurtado opina que no es muy diferente de la anterior moción, considera que el gobierno catalán elegido democráticamente articula leyes y como sigue estando con el pueblo catalán vamos a votar a favor porque queremos que salga algo del Ayuntamiento de Sopuerta que apoye al pueblo catalán.

El alcalde interviene para opinar que lecciones de democracia a Sopuerta no hay que dar, que en el Fuero de Avellaneda que ratifica las 10 repúblicas independientes fecha la democracia en 1394 por lo que enseñarnos a los de Sopuerta de democracia nada. Ellos tendrán que resolver sus problemas y nosotros los nuestros; pero primero los vascos y nos parece más adecuada esta moción porque no estaba de acuerdo con colocar la estelada en el balcón del Ayuntamiento.

Concluido el debate se somete a votación la moción.

Votos a favor: 9; 4 de la AEI, 2 del EAJ-PNV y 3 de Bildu
Votos en contra: 0
Abstenciones: 1 de D. Fabio Cavaliere de la AEI.

Se acuerda por la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación aprobar la moción presentada por EAJ-PNV.

D. Fabio Cavaliere toma la palabra para contestar que su voto ha sido distinto porque cree que las dos mociones también son distintas y quiere invitar a todos a leer la ley de referéndum catalana y la ley de referéndum de Quebec y compararlas.

**<u>RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>**

**11.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**2017ko IRAILAREN 28ko 5/2017 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.**

**AKTA**

**1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2017ko ABUZTUAREN 14ko 2/17 ZENBAKIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA ETA 2017ko ABUZTUAREN 18ko 3/17 ZENBAKIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.**

Bilkura honen deialdiarekin batera aurreko bilkuretako akten zirriborroa bidali zenez, irakurritakotzat eman da.

[…]

Zuzenketarik gabe berretsi dira 2017ko abuztuaren 14ko 2/17 zenbakiko ezohiko bilkuraren akta eta 2017ko abuztuaren 18ko 3/17 zenbakiko ezohiko bilkuraren akta.

**EBAZPENAK**

**2.- ASIER IBARRONDO JAUNA ZINEGOTZI-KARGUAZ JABETZEA, MAHAIBURUAREN AURREAN HITZEMATEA EDO ZINA EGINDA.**

[…]

Asier Ibarrondo Abad jauna Sopuertako Udaleko zinegotzi-karguaz jabetu da bilkura honetan eta bere taldearekin eseri da, Sopuertako AGRUPACION ELECTORAL INDEPENDIENTE taldearekin, hain zuzen.

**3.- FISKALIZAZIO-TXOSTENAREN EMAITZEN BERRI EMATEA**

Irailaren 20ko 5/17 zenbakiko Kontuen Batzorde Bereziaren bilkuran, jakinaren gainean geratu ziren EAEko 2015eko Toki Erakundeen Kontuen inguruko txostenaren fiskalizazioaren emaitzei buruz.

Horren berri emanda, bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

**4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2017 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZ EUDELek EGINDAKO GOMENDIOA.**

Irailaren 20ko 5/17 zenbakiko Kontuen Batzorde Bereziaren bilkuran gomendioaren aldeko irizpena eman zen, Udalbatza Osoak aho batez onetsi ondoren.

Bertaratuek aho batez erabaki dute udal honetako langile publikoen ordainsariak % 1 igotzea eta 2017ko aurrekontu-plantillaren aldaketa onestea, % 1eko igoera hori jasota, bat etorriz 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen (ekainaren 27ko 3/2017 Legea) 18. bi artikuluarekin.

[…]

**5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, HIRU MERKATARITZA-ETXEREN ALDEKO KREDITUEN EPAIKETAZ KANPOKO AITORPENA, AURKEZTUTAKO FAKTUREN ARABERA, AURRETIK KONTRATURIK EGON GABE.**

Irailaren 20ko 5/17 zenbakiko Kontuen Batzorde Bereziaren bilkuran, gastuaren aldez aurreko baimen edo fiskalizaziorik ez duten fakturen zerrenda baten nahitaezko txostena egin zen. Horren bidez, epaiketaz kanpo aitortu nahi zen fakturak aurkeztu dituzten hirugarren zerbitzu-emaileen aldeko kreditua. Eta onetsi zen, bidezkoa bada, Udalbatzak ordainketa egiteko agindua ematea, ez baitago kontraturik.

Gehiengo soilak proposatu du Udalbatzak aitortzea erregistratutako fakturen ordainketa-betebeharra, adostasuna egiaztatuta duten zerbitzuei dagokienez eta aurkeztutako zerrendarekin bat.

Proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5 (AEIk)
Aurkako botoak: bat ere ez.
Abstentzioak: 5 (2 EAJk eta 3 Bilduk)

Udalbatza osatzen duten bertaratutako kideek, gehiengo soilez, fakturak onestea eta horiek ordaintzeko agindua ematea erabaki dute […]

**6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEAN SINATUKO DEN LANKIDETZA-HITZARMENAREKIN BAT EGITEA, UR EDANGARRIAREN TOKIKO BIGARREN MAILAKO BANAKETA-SAREA KUDEATZEKO, MANTENTZEKO, USTIATZEKO ETA BERREZARTZEKO.**

Irailaren 20ko 5/2017 zenbakiko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordearen bilkuran, izapidetutako 2017-0222 espedientea ikusi zuten. AEIko bi ordezkariek aldeko irizpena eman zuten eta Bilduko ordezkaria eta EAJ-PNVko ordezkaria abstenitu egin ziren. Hortaz, bertaratutako zinegotzien gehiengo soilaz, Udalbatzak gaia onets zezan proposatu zen.

[…]

Bertaratutako zinegotziek aho batez erabaki dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin sinatuko den lankidetza-hitzarmenarekin bat egitea onestea.

**7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 120 ZENBAKIKO EPMko OKUPAZIOA ZUZENDUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOEN PLEGUA, GALDAMESKO MARDONA UR-BILTEGIA HORNITZEKO PROIEKTUAN JASOTAKO LANAK GAUZATZEKO.**

Irailaren 20ko 5/2017 zenbakiko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordearen bilkuran, AEIko bi ordezkariek aldeko irizpena eman zuten eta Bilduko ordezkaria eta EAJ-PNVko ordezkaria abstenitu egin ziren. Hortaz, bertaratutako zinegotzien gehiengo soilaz, Udalbatzak honako hau onets zezan proposatu zen: okupazioa zuzenduko duten baldintza tekniko eta ekonomikoen plegua, Mardonako biltegira ura ekartzeko eta horretarako Safo pista (120 zenbakiko “Sopuerta” Erabilera Publikoko Mendiko “El Arenao” parajean) erabiltzeko.

Alkateak puntu hau kendu du bilkurako gai-zerrendatik.

**8.- SOPUERTA ETA ABANTO ZIERBENAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BERRI EMATEA, SOPUERTAKO UDAKO UDAL-IGERILEKUAK ERABILTZEKO.**

Irailaren 20ko 5/2017 zenbakiko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordearen bilkuran eman zen hitzarmenaren berri.

Javier Núñez jaunak hitzarmena sinatzeko ezohiko arrazoia azaldu zuen.

Horren berri emanda, bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

**KONTROLA**

**9.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA LABUR-LABUR.**

Udalbatzari azken osoko bilkuratik emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman zaio, hain zuzen ere, ekainaren 19ko 451/2017 Dekretutik abuztuaren 22ko 552/2017 Dekretura bitartekoen berri.

Abuztuaren 18ko 542/2017 Dekretuaren berri eman da; horren bidez, Alberto Lambarri Arana zinegotzi jauna bigarren alkateorde izendatu zuten.

Dekretuen kopiak ohiko bilkuraren deialdia baino lehen igorri zaizkio zinegotzi guztiei, eta beraz, irakurritakotzat eta ezaguntzat jotzen dira. Honako hau da edukia, labur-labur:

[…]

Horren berri emanda, bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

Eguneko aztergaien zerrendako gaiak aztertu ondoren eta eskaera eta galderekin hasi aurretik, udalburuak galdetu du ea talde politikoren batek, premiazko arrazoiak direla eta, bilkuran aurkeztu nahi duen deialdiarekin batera doan eguneko aztergaien zerrendan ez dagoen eta eskaeren eta galderen atalean sartu ezin den gairen bat. Hori guztia azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko (Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren araudia onesten duena) 91.4 artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

Bi mozio aurkeztu dira eta udalburuak Udalbatzari eskatu dio aurkeztutako bi mozioak eztabaidatzearen egokitasunari buruz bozkatzeko (bozketa bakarrean).

**10.- MOZIOAK.**

**10.1.- EH BILDUREN MOZIOA: "KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT".**

Mozioa aurkeztu duen taldeko Joseba Andoni Llaguno Hurtado ordezkariak mozioaren testua irakurri du:

*"Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere*

*bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.*

*Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsei, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun zaie.*

*Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Sopuertako Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:*

*1.- Udal honek zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarron borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.*

*2.- Udal honek Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik bururiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu; Madrilgo Gobernua, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.*

*3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Eskubide demokratiko bat praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzearen aurka gaude.*

*4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.*

*5.- Udal honek urriaren 1eko emaitza errespetatzen du eta instituzio zein eragileei ere berdina egiteko eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere emango zaie erabaki honen berri.*

*6.- Urriaren 1eko galdeketa bitarte udaletxeko balkoian estelada jartzea onartzen da, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.*

Alkateak adierazi du udaletxeko balkoian estelada jartzearen aurka dagoela.

Mozioa irakurri ostean, bozkatu egin dute.

Aldeko botoak: 3 (Bilduk)
Aurkako botoak: 7 (5 AEIk eta 2 EAJ-PNVk)
Abstentzioak: bat ere ez.

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaz erabaki da EH Bilduk aurkeztutako "Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat" mozioa ez onestea.

**10.2.- EAJren MOZIOA KATALUNIARI BURUZ.**

Begoña Dieguez Muñecas andreak bere taldearen mozioa irakurri du:

*"Sopuerta, 2017ko irailaren 28a / Sopuerta, 28 de septiembre de 2017*

1. *SOPUERTAKO Udalak bere kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian eragin den esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan eta beren arduradun legitimoei.*

4. *SOPUERTAKO Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen errepresio estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.*

5. *SOPUERTAKO Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari, bai eta demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.*

6. *SOPUERTAKO Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbidetzera eta bere erabakiak errespetatzera.*

5 *El Ayuntamiento de SOPUERTA muestra su rechazo y alarma por la intervención por la vía de hecho de la autonomía catalana y por la operación policial llevada a cabo por las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado que ha conllevado registros y detenciones en instalaciones y responsables legítimos de la Generalitat.*

6 *El Ayuntamiento de SO PUERTA insta al Gobierno de España a desistir en su estrategia represiva de libertades básicas y fundamentales contraria a los principios básicos de la democracia.*

7 *El Ayuntamiento de SOPUERTA reafirma su compromiso con todos los principios democráticos fundamentales y muestra su solidaridad con el pueblo de Catalunya y todas las personas e instituciones que están padeciendo la represión política y antidemocrática dirigida por el Gobierno de España.*

8 *El Ayuntamiento de SO PUERTA insta a que se posibilite la expresión de la voluntad democrática del pueblo de Catalunya y se respete su decisión."*

Irakurri ondoren, Fabio Cavaliere jaunak hartu du hitza eta adierazi du kasu honetan abstenitu egingo dela. Era berean, azaldu du mozio honen eta aurrekoaren bozketen arteko ezberdintasuna; horretarako, honako hau esan du, hitzez hitz: *"Kataluniako erreferendumaren alde adierazteko, biltzeko eta manifestatzeko askatasunarekiko Espainiako Estatuak duen jarrera antidemokratikoa erabat gaitzesten dut. Erreferendum hori Kataluniako gobernuak marraztu du arau antidemokratikoekin; eta horiek ez dute Kataluniako herri osoa ordezkatzen, ez eta babesten ere. Hori dela eta, abstenitu egingo naiz".*

Joseba Andoni Llaguno Hurtado jaunak uste du bi mozioak ez direla oso ezberdinak; bere ustez, demokratikoki hautatutako Kataluniako Gobernuak legeak eratzen ditu, eta mozioa Kataluniako herriaren aldekoa denez, aldeko botoa emango dute. Izan ere, bere taldearen nahia da Sopuertako Udaletik Kataluniako herriari babesa adierazteko zerbait ateratzea.

Alkateak hartu du hitza eta esan du Sopuertan ez direla demokraziaren inguruko ikasbideak eman behar. Avellanedako Foruan 10 errepublika independenteak berretsi ziren 1394. urtean; hortaz, Sopuertan ez da demokraziari buruzko ezer ez erakutsi behar. Herri bakoitzak bere arazoak ebatzi beharko ditu, baina lehenbizi euskaldunonak. Mozio hau egokiagoa dela uste dugu udaletxeko balkoian estelada jartzearekin ados ez dagoelako.

Eztabaida amaitu ondoren, mozioa bozkatu dute.

Aldeko botoak: 9 (4 AEIk, 2 EAJk eta 3 Bilduk)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (AEIko Fabio Cavaliere jaunak)

Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz erabaki da EAJk aurkeztutako Kataluniaren aldeko mozioa onestea.

Fabio Cavaliere jaunak hartu du hitza eta azaldu du bere botoa ezberdina izan dela bere ustez bi mozioak ere ezberdinak direlako. Guztiei proposatu die Kataluniako erreferendumaren legea eta Quebeceko erreferendumaren legea irakurtzeko, eta ondoren, alderatzeko.

**ESKAERAK ETA GALDERAK.**

**11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**